

NAFARROAKO TALDEKAKO XAKE TXAPELKETA

(Oinarri Teknikoak, Ohorezko Mailan)

Taldeak: Oberena A, Orvina A, Donibane Kirol Elkarte A, Orvina A eta Santa Ana A.

Kudeaketa tasa: 60 euro ordaindu beharko du talde bakoitzak. 2024ko azaroaren 2a baino lehen ordaindu behar da (hau da, atsedeen txanda baino lehen). Bestela, taldea kanporatua izan daiteke.

Jokatze tokia etxeko taldearen lokala izanen da. Azkeneko txandan maila guztietarako egoitza bakarra izanen da, Iruñean, zehaztuko den tokian.

Bi itzuliko liga izanen da. Partida osatzeko 90 minutu izanen dira, gehi 30 segundo jokaldiko.

Sei mahaitan jokatuko dira neurketak. Etxeko taldeak zuriekin jokatuko du lehenengo mahaietan, beltzekin bigarrenetan eta horrela koloreak trukaturik mahai guztietan.

2023-24ko denboraldian Ohorezko Mailan jokatze eskubidea irabazi zuten lau taldeek osatuko dute, talderen batek uko egiten ez bada, edo diziplina zigorrik gertatzen ez bada. Inskripzio epea amaituta, plaza liberik balego aurreko denboraldiko sailkapenaren arabera beteko da, Ohorezko Mailan sartzerik lortu ez zutenen artean (jaitsitako taldeak lehentasuna izanen du).

Taldearen inskripzioa Federazioari zuzendutako posta elektronikoaz egin behar da, 2024ko urriaren 9a baino lehen. Jokalarien zerrenda eta klubaren zerrenda bakarra 2023ko urriaren 15eko 12:00ak baino lehen eman behar dira.

Talde parte hartzaileen zerrenda argitaratzea: 2024-10-10, 13:00etan.

Zozketa: 2024-10-11, 13:00etan.

Taldeetako jokalarien zerrendak argitaratzea: 2024-10-16, 14:00etan.

Lehenengo txanda: 2024-10-19, 16:30ean.

Bigarren txanda: 2024-10-26, 16:30ean.

Atsedena: 2024-11-02.

Hirugarren txanda: 2024-11-09, 16:30ean.

Laugarren txanda: 2024-11-16, 16:30ean.

Bosgarren txanda: 2024-11-23, 16:30ean.

Seigarren txanda, egoitza bakarra: 2024-11-30, 16:30ean.

Sailkapenak argitaratzea: 2024-12-03, 14:00etan.

Lehenengo sailkatua Adin guztietako Nafarroako talde txapeliduna izanen da.

Euskal Ligako Lehenengo Mailan jokatze gonbidapena iritsiz gero, txapelidunarentzat izanen da. Honek jokatuko du hurrengo Taldekako Euskal Liga. Txapelidunak Maila horretan talderen bat izanen balu edo jokatzeari uko eginen balio, hurrengo sailkatuak hartuko luke gonbidapena. Euskal Ligako Araudiak ahalbidetuz gero, talderen bat

gonbidapenaren jabe egin arte hurrengo sailkatuekin modu berean eginen litzateke, beharrezkoa balitz.

Ohorezko Mailan azken tokian sailkatutako taldea Lehenengo Mailara jaitsiko da.

Torneoko zuzendaria: Aritz Idiazabal Troyas.

2024-10-07.

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.